

Bageraren buletina

2019 azaroa

Kaixo bagerakide!

Azaroko buletinaren bidez, hilabete honetan eskuartean ditugun eginkizun nagusien berri eman nahi dizugu.



DONOSTIAKO EUSKALTZALEON TOPAKETAK (DET)

Bagera Elkarteak Donostiako Euskaltzaleon Topaketak antolatu ditu "Entzun gaitezen, entzun gaitzaten" izenburupean **azaroaren 16an, San Telmo Museoa 9:30etik 13:30era**.

Donostia hiri euskalduntzat hartzen bada ere, 2016an egindako neurketek argi adierazi ziguten euskararen erabilera beheranzko joeran doala eta herritar zein eragile askoren kezka nagusia da hiria jasaten ari den aldaketen baitan euskararen trataera zein den eta etorkizunean zein izango den. Izaera ezberdina duten hamarnaka eragile dabilta egoera hori aldatu nahian: erakunde publikoak, elkarteak, ikastetxeak, euskaltegiak, auzo batzordeak eta abar. 2018ko *Euskaraldiak* hiria astindu zuen eta norbanakoengan jarri zuen fokua.

Kezka partekatzen duten eta egoera aldatzeko gogoz daudenen artean eztabaida partekatu eta sare zabal eta anitzean lantzea da asmoa, izan entitate edo norbanako, parte hartze prozesu bat jarri nahi dugu martxan; batetik, partekatu, hausnartu, gogoetatu eta elkarrizketak izateko espazioak eskaintzeko, eta bestetik, Donostiako euskaltzaleen mugimendua osatzeko oinarriak zeintzuk izan behar diren erabakitzeko.

Topaketetan parte hartzeko izen ematea zabalik egongo da azaroaren 14ra arte. Topaketen ondoren bazkaltzeko aukera ere izango da. Prezioa: 15€ (izena ematean zehaztu behar da).

IZEN-EMATEA [HEMEN](#)

Nitik harago! Baietz 11

Intxaurrondon! ekimena

2018 bukaeran hizkuntza ohituren aldaketan pauso garrantzitsuak eman ziren Euskaraldia: *11 egun euskaraz* ekimenaren baitan. Bigarren edizioan urrats berriak emango ditugu, eta norbanakoek ez ezik, entitateek ere neurriak hartuko dituzte hizkuntza praktika berriak bultzatzeko.

2019ko azaroaren 22tik abenduaren 3 bitarte Intxaurrondon, *Nitik harago! Baietz 11 Intxaurrondon!* ekimena burutuko da.

2020an Euskal Herri osoan egingo den Euskaraldiaren aitzindariak izango dira Intxaurrondon. Entitateetan egingo den ariketaren probaldia egingo dute, ondoren Euskal Herri osora zabaltzeko. Beraz, 2019an oinarriak jarriko dituzten entitateekin egingo da ekimena, gero, etorkizunera begira auzoko gainerako entitateentzako eredu izan dadin.

Beraz aurren, pauso berriak emango dituzte Intxaurrondon, norbanakoek ez ezik, entitateek (kolektiboek, elkarteek...) ere neurriak hartuko dituzte hizkuntza praktika berriak bultzatzeko. Norbanakoen erabaki esparruan aritzetik, taldeetara ere egingo da salto.

Kantu Jira

Azaroaren 16an, Parte Zaharreko Fermin Calbeton kaletik abiatuta, 12:00etan izango da hilabete honetako Kantu Jira. Lagunekin batera euskal kanta tradizionalak abesteko aukera paregabea.

Erromeria

Azaroaren 30ean, *Euskararen Eguneko* jardueren baitan, Erromeria antolatu dugu Udalaren Musika eta Dantza Eskolaren laguntzaz, ohi bezala Parte Zaharreko Plaza Berrian 18:00etan. Dinamizatzaile lanetan Jone Muniategiandikoetxea eta Klaudia Erentxun arituko dira.

Errigora

6 urte joan dira Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka kanpaina lehenengoz egin zutenetik. Ideia sinplea zen: Nafarroa hegoaldeko baratzaren uztarekin saskiak osatu eta jasotako diruaren %25 zonalde zigortu honetan euskara hauspotzeko erabili. Ia 80.000 saski eraman ditugu Nafarroa hegoaldeko baratzetik Euskal Herriko txoko guztietako sukaldeetara eta ia 1.000.000€ bideratu dugu Euskal Herriko txoko guztietatik Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara.

Aurtengo eskaintzaren berrikuntza: 50€ko bi saski planteamendutik (saski zuria eta saski beltza), izaera eta prezio desberdinetako hiru saskira pasatuko gara. Saski beltza, orain arte eskaintzen izan den moldeko saskia izango da, betikoa, 50€ren truke jaso ahal izango dena. Berdea 60€tan eskuratu ahal izango da, produktu ekologikoz osatua. Saski zuria —berezia— 70€ko balioko du; Gabonetako saski baten tankerakoa, formatik bertatik ere besteetatik desberdinduz.

Aurten ere, Bagera Elkartean saskiak eskatzeko aukera izango duzu azaroaren 20ra arte. Informazio gehiago nahi izanez gero, www.bagera.eus/helbidean topa dezakezu edo gurekin harremanetan jarritz.

Mintzalagun egitasmoan bidelagunak behar ditugu

2019-2020 ikasturteko Mintzalagun taldeak osatzen ari gara eta bidelagunak (laguntzaileak) behar ditugu.

Hau horrela, Donostiako euskaltzale guztiei egin nahi dizuegu proposamena: astean ordu betez bi-hiru pertsonekin elkartu eta euskaraz aritzeko agendan tartetxo bat egitea. Izan ere, urteetako esperientziak erakutsi du askok egunerokotasunean euskaraz bizitzeko saltoa eman dutela, bidelagun izan dituzten mintzalagunei esker. Parte hartzeko prest?

Ibilbideak Donostiatik euskaraz

Iaz martxan jarri genuen "Ibilbideak Donostiatik euskaraz" egitasmoa eta aurten jarraitzeko asmoa dugu. Hitzordua 09:30ean Kursaalera albo batean dagoen Ni neu kafetegiaren ondoan izango da asteazkenetan. Ordu eta erdiko iraupena izango dute eta 10 km ingurukoak izango dira. Hala ere, eguraldiaren arabera malguak izango dira. Ibilbide hauen helburua kirola eginez euskaraz aritzea da. Interesa izanez gero Bagera Elkartera deitu.

Elkarrizketa Filosofikoak

Azaroaren 4an izango da hilabete honetako Elkarrizketa Filosofikoa, ohi bezala, Urrats euskaltegian ([Amezketarrak kalea, 12](#)) 19:00etatik 20:30era. Gaia: erbestea eta ama hizkuntzan (herria eta hizkuntza). Ikusi/irakurri beharrekoak: "[El dicho de los exilios](#)" (Barbara Cassin-i egindako [elkarrizketa](#)).

Bageraren Zineforuma

Bagera Donostiako euskaltzaleen elkarteak zineforuma jarri du martxan. Hilean behin egingo ditugu emanaldiak, eta euskaraz sortutako zein euskarara ekarritako (bikoizketaren bidez edo azpidatziekin) lanak proiektatuko ditugu Koldo Mitxelena Kulturunean.

Hilabete honetako emanaldia **azaroaren 5ean** izango da, arratsaldeko 18:30ean. [Fenix 11*23](#) (Joel Joan eta Sergi Lara, 2012) filma proiektatuko dugu. Solasaldian Eñaut Mitxelenak (Kazetaria eta zinema kritikaria) parte hartuko du.

Euskararen Nazioarteko Eguna

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, hainbat ekimen izango dira azaroaren 23tik abenduaren 4ra arte Donostian. Auzoetako egitarauen informazioa eskuragarri izango duzue www.bagera.eus.

Eta nola ez, aurtengoan ere, Bagera Elkarreak jarduera ezberdinak antolatuko ditu. Hala nola; abenduaren 1ean, San Telmo Museoa, 17:30ean [Erraiak](#) dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia (Ekain Martinez de Lizarduy Stürtze zuzendariarekin) eta abenduaren 3an Mintzodromoa (egun horretan tartetxoren bat baduzu zalantzarik ez izan eta lehenbailehen Bagerara deitu).